

## JOSE MARIA ORMAECHEA ZENDU DA

“Ormaechea, Arizmendiarrietaren dizipulu leial eta bokazionala, harengandik ikasi zituen bizitza osoan lagun izan dituen balioak: konpromisoa, entrega, erantzukizuna, lankidetzeta, elkartasuna eta eskuzabaltasuna, haren ideia eta gomendioak gorpuztuz eta eduki enpresariala emanaz, errealitate arrakastatsu bihurtzeko, lehendabizi Ulgorreko zuzendaritzan, eta ondoren Laboral Kutxakoan.

Erakunde horretatik jarraitu zuen Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa garatzeko apustuan, Enpresa Dibisioa ortuz, kooperatiben kopurua azkar handitzeko eta lanpostu kopuru handia sortuz, bazkide kooperatibista moduan finkatuta, zenbait eskualdetan banatuta.

Enpresa garapenaren arloan, esperientzia sortzaile hura protagonizatu eta biziki bizi izan zuen. Ormaechearen proiektuen mapan Don Jose Mariaren ideia eta behar soziologiko eta etikoen erantzuna aurkitzen dugu, zeinek rol garrantzitsua jokatu baitute bere sorkuntzan. Ez da enpresaburu arrakastatsuen biografia, pertsona arruntek eta ozen mintzo diren ahotsen topaketa baizik. Bizitzeko eta pentsatzeko modu bat da, esperientzia humanoaren kontakizun bat. Gizarte berdintasuna bezain erronka handi eta gaurkotasun handikoen aktore garrantzitsua izatea erabaki zuen.

Horrez gain, egin duen guztia, idatzi duen guztia, zuzendu duen guztia eta lankideak konbentzitzeko erabili duen guztia hausnarketarako eta ekintzarako gonbidapen bat da. Bere zeregin profesionalean, ezaugarri nagusia da etengabeko ahalegin berritzailea, besteen mesedetan jardutea, langile nekaezina izatea, irakurle porrokatua, idazle sotila, eta oso zorrotza eta exijentea izatea planifikatutako helburuak betetze aldera.

Bere buruari hainbeste eskatu zion horrek, halaber, asko eskatu die gainerakoei prestakuntzari, parte hartzeari eta konpromisoari dagokienez. Horregatik irabazi zuen guztien errespetua, eta baita ere “Tigrea” goitizena. Ezaugarri guztien artean, “eskuzabaltasuna” nabarmentzen da. Inola ere ez zuen bere aldeko saririk bilatu, egindako obra handia izan zen arren, Euskal Herriko enpresaburu handien artean egonik. Amaitzeko, esan behar da gizon kooperatiboa dela, ekintzailea, langilea eta enpresaria, idealista eta aldi berean pragmatikoa. “

Eta ez dugu agur esan nahi, zu ere partaide zinen Elkartetik eskerrak eman gabe, bihotzez, Jose Mari, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa bultzatzen eta Arizmendiarrietaren gogoetak eta balioak zabaltzen egin duzun ekarpen eskergagatik”. Goian bego.